

Prest!

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

232 zenbakia
2022 otsaila

Prest!



BERBETAN: **ALAZNE ASTORGA** AKTOREA

ERREPORTAJEA: **EUSKAL OGIARENTZAKO LEKUA DEUSTUN** BARKUA: **MENDEA PASATXO MUSIKA IRAKASTEN**

TOKIKOM

8-229-230-231-232-



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak eta edukaren erantzule bakarra



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Angel Prieto Fidalgo - Atxarte Salvador Navarro		Iritzia	4
	Ane Gobbetti		Gureak kanpoan	5
e	erreportajea Euskal ogiarentzako lekua Deustun			6
	<p><i>Blas de Otero kaleko 45. zenbakian dagoen Parriaundi okindegiak 20 urte baino gehiago daramatza Deustun ogi tradizionala saltzen. Ogiaren salmentaren ugaritzearen aurrean, Eusko Labelek aurkeztutako Euskal Ogia saltzea erabaki du Parriaundik. Deustualdean eskaintza hori duen okindegi bakarra da.</i></p>			
	Ibarrekolanda BHI		Eskolak	10
	Itsas-istripua Olabeagan (1893)		Behin batean	12
	Aldarrikapenez beteriko inauteriak ospatu ditugu Deustun		Artikulua	14
b	berbetan ALAZNE ASTORGAekin			16
	<p><i>Gazte hasi da Alazte Astorga erriberarra aktore lanetan, prestakuntza espezifikoa jaso baino lehen ere. Antzezle gisara bere burua onartzea, ordea, ez zen bide zuzena izan. Bere burua ezagutzeko eta beste hamaika Alazane aurkitzeko balio izan dio antzerkigintzak eta berriki murgildu den zinemak. Bideaz eta prozesuaz aritu gara, besteak beste, elkarriketa honetan.</i></p>			
	Casado y Cia enpresa (1957)		Irudiak berbetan	21
	ANTZERKIA Emakume zientzialariak hipside dituen antzezlanaren aurkeztu du Eidabek			24
	KULTURA Mendea pasatxo musika irakasten			
	PINTXODROMOA Hanburgesa patatekin Deustuko Herriko Tabernan			
	KULTUR TXOTX Antxon Agirre eta Itxaso Lejarza Argiarron			



Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrega

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inaziooko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inaziooko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu

Diseinua: BO5T

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria

Zer egin genezake?

Bankuak azken urteotan martxan jartzen ari diren neurriak ez dira bidezkoak. Herri eta auzo txiki askok banku-sukurtsalik ere ez daukate. Hain zuzen ere, EAEn badira 120 herri baino gehiago banku-sukurtsalik gabe. Gainera, Bizkaiko 22 udalerriko biztanleak kutxazain automatikorik gabe bizi dira. Bulegoen ixteak herritarrei egiten die kalte, nagusiei eta denda txikien jabeei bereziki.

Egoera hau salatzen ekintza anitz egin dira auzoetan. Adibidez, Arangoitiko Auzo Elkartek 200 pertsona baino gehiago batu zituen Bilboko kale nagusian antolatutako manifestazio batean. Beste kontzentrazio batzuk ere jarri

zizuten martxan. Protesta hauek guztiak eginda ere, auzoetakoek ez dute lortu banku-sukurtsalak berriz irekitzea, ezta zuzeneko arreta berrezartzea edo mantentzea ere. Gauzak horrela, Bilboko talde politiko guztiak batu eta banketxei aurrez aurreko arreta bermatzeko eskaera egitea adostu zuten.

Badirudi orain arteko ahaleginak ez direla egoera aldatzeko behar bestekoak izan. Askok, behintzat neu, galduta gaude. Ez dakigu zer nolako ekintzak egin ditzakegun banku-sukurtsalak berriro ireki ditzaten presionatzeko. Baina, guztien ahaleginak batuz gero, ziur zerbait bururatuko zaigula. Zer diozu, zer egin genezake?



Atxarte Salvador Navarro

Hego-haizearen zurrumbiloan



Moteldu trafikoa

Azken asteotan, Bilboko Udaletxearen aurreko biribilgune-ko bidegorriarekin egin den lardaskeriak hautsak harrotu ditu. Ez da harrizkoa. Oinezkoa eta auto gidaria naiz, baina txirringaz ere ibiltzen naiz Bilbotik, duela 25 urte gutxienez. Gaur egun, lanerako joan-etorria bizikletaz egiten dut egunero, eta egunero izaten dut ikararen bat, eta txirripaz libratu izanaren sentrazioa. Bidegorrian zehar ibiltzen naiz, eta ez dagoen lekuetan, errepidetik. Udaletxe aurreko biribilgunea lehen arriskutsua bazen, orain arriskutsuagoa. Bat nator Biziz Bizi elkarteak egindako salaketarekin.

Are gehiago, Udalarri eskatuko nioke bide-hezkuntzan eta bide-seinaleetan apur bat inbertitu dezan. Bilboko gidariak (autoetakoek, Bilbobusekoek, taxi gidariak...), hein handi batean, bizikletekin batera zirkulatu ez dakitela esango nuke. Uste dut gogoratu behar zaiela, ezer baino lehen, errepidean lehenasuna beti bizikletak daukala.

Gainera, ia inork betetzen ez duen arren, 30 km ordukoa dela gehieneko abiadura. Bestalde, aurreratzen 1.5 m (orain 2 m) utzi behar direla bizikletaren eta beste ibilgailuaren artean. Azkenik, hiri barruan, bizikleta bat abiadura bizian eta ia lekuri ez dagoenean aurreratzea, arauen kontrakoa eta arriskutsua (bizikletarentzat, jakina) izateaz gain, alferrikakoa ere badela, ia beti 20 metro aurrerago semaforo gorri bat aurkituko dutelako, zebra-bide bat, bidegurutze bat edo geldiaraziko dituen beste edozein "oztopo" arrunt.

Kasu gehienetan, bizikleta minutu erdi beranduago aurreratu duen autoaren parean egoten da berriro. Ez da nahikoa El Correon harro azaltzarekin zenbat kilometro bidegorri daukagun Bilbon, gehienak errepidean bertan daudenean eta bide-seinaleak eta hezkuntza ez direnean nahikoa, inondik ere. Gidariok, ez hartu arriskurik, hartu patxadaz.



Ane Gobbetti Eiguren

Jatorria: Deustu

Bizitokia: Dublin (Irlanda)

Testua: Alazne Carrillo



“Esperientzia hau neure burua hobeto ezagutzeko modu bat izan da”

Duela hiru hilabete heldu zen Ane Gobbetti Irlandara ingelesa hobeto ikasteko grinaz. Politika Zientzietako ikasketak bukatu ostean, soziologia gradua egiten ari da taberna batean lan egiten duen bitartean.

Zerk bultzatu zintuen erabaki hau hartzera?

Beti gustatu zait bidaiatzea eta leku berriak ezagutzeko, eta Erasmus programan parte hartu nuenetik lekuz mugitzea ere pentsatuta neukan unibertsitateko gradua bukatutakoan. Baina pandemia dela eta ezin izan nuen egin, beraz, beste ikasketa batzuk hasi nituen eta orain hona etortzeko aukera ikusi dut nire ingeles maila baxuagatik. Aldi berean, Deustun edo Bilbon baino lan aukera gehiago daude hemen. Baita soldata hobeak.

Nolakoa izan da egokitzapena?

Hotz handia egiten duen arren, uste nuena baino askoz hobe izan da. Irlandarrak oso jatorrak dira eta gainera, pentsatzen nuena baino askoz hobeto moldatzen ari naiz ingelesarekin. Hemen ikusten dut beste hizkuntza batzuetan lan egitea posible dela, baita komunikatzea ere.

Hizkuntzak baldintzatu du bertan egoteko modua?

Bai. Hasieran ingeles maila erdi baxuarekin kontu burokratikoak egiterako orduan zailtasun handiak izaten dituzu. Halaber, irlandarren azentua oso zaila da ikasteko eta ulertzeko, orduan askotan, kostatzen da hizkuntza ikastea eta ondorioz haiekin harremanetan jartzea. Batez ere, txantxak egiten dituzunean edo zeure burua xehetasun handiz azaldu nahi duzunean. Hala ere, oso jatorrak dira eta nire kasuan, beti egon dira prest ni entzuteko. Tabernan lanean nagoenean ere beti laguntzen naute.

Zer nabaritzen duzu faltan Euskal Herritik?

Lagunak eta familia gehien bat, hori zalantzarik gabe. Baina kulturalki “ondo jatea” asko nabaritzen dut faltan. Euskal Herrian edonon jan daiteke kalitatezko janaria prezio onean. Hemen ordea, ez dago ondo jateko ohiturarik eta ia guztia janari arina da. Nire ustez dena dago oso industrializatua.

Zer da gehien gustatu zaizuna bertatik?

Gehien gustatu zaidana irlandarren berotasuna izan da. Agian ez dira gu bezain beroak, baina hotsagoak espero nituen eta zentzu

horretan oso sorpresa ona hartu dut uneoro oso babestua sentitu naizelako.

Deustura itzultzeko planik daukazu?

Egia da bizi osorako ez nintzatekeela hemen geratuko, baina lan egitea hain erraza denez, Bilbon ekonomikoki ez daukadan autonomia hemen badaukat. Ez dut baztertzeko udan Euskal Herrira buelta egitea eta gero hona itzultzea behintzat ikasketak amaitu arte. Ideia ona ikusten dut hemen geratzea, ingelesa ikastea, lana izatea, nire esperientziak biziak eta behin akademikoki formatuta nagoenean eta ingeles maila hobe eskuratzen dudanean Euskal Herrian zerbait topatzea. Baina auskalo.

Gomendatuko zenuke horrelako esperientzia biziak?

Bai. Baina ez bakarrik Irlandan, joan dadila gustuko duen lekura beldur barik eta egin dezala egin behar duena. Hemen zeure burua ezagutzen duzu eta oso esperientzia ona izaten da, aberasgarria zentzu guztietan.



XXX

EUSKAL OGIARENTZAKO LEKUA DEUSTUALDEAN

Blas de Otero kaleko 45. zenbakian dagoen Parriaundi okindegiak 20 urte baino gehiago daramatza Deustun ogi tradizionala saltzen. Ogiaren salmentaren ugaritzearen aurrean, Eusko Labellek aurkeztutako Euskal Ogia saltzea erabaki du Parriaundik. Deustualdean eskaintza hori duen okindegi bakarra da.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu**Argazkiak:** Basque Label Okinen Elkarte eta Nerea Cubillo Urkizu

Ogi “arina eta merkea” saltzen duten hiru saltoki ireki dituzte kale berean azken 5-10 urteetan Deustun. Ogi az gain, gozokiak, edaria eta kafea ere saltzen dituzte. Hiru horiek kenduta, ogia soilik saltzen duten zenbat okindegi daude gure auzoan? Okindegietan ez ezik, gaur egun supermerkatuetan, gasolina-zerbitzuguneetan, janari dendetan zein tabernetan erosi daiteke ogi barra bat. Lekuaren arabera, prezioa ere nabarmen aldatuko da eta batzuetan, ogi tradizionala saltzen duen okindegi batean baino garestiago ordaintzea egokituko zaigu. Errotazio arina duten okindegien gorakadarekin batera, ustezko ama orez eginiko ogiak ere areagotu dira saltokietako apaletan, baita osoko ogiak edota zaporedunak ere.

Era berean, industrializazioak asko aldatu du ogia egiteko era. Lehen presarik gabe egiten zen bitartean, orain gehigarri asko botatzen dizkiote hartidura arintzeko eta orokorrean, prozesua arintzeko. Gehigarri horiek gure gorputzean nolako eragina duten, aurrerago aztertuko dugu. Basque Label Okindegiak elkarteak ordean, ogia egiteko era tradizioaletara itzultzea erabaki du, ogiaren elikagaiak eta noski, tokian tokiko okinen eskulana erabat goraitatuz.

Ogia ama orez eginda dagoela esateko, hainbat baldintza bete behar dira legeak dioenaren arabera: ogiaren % 5a behintzat ama orearekin osatuta egon behar da eta gainera 8 orduko hartidura edo fermentazioa eman behar zaio



Euskal Ogia.

derrigorrez. 2008 urteaz geroztik hainbat ahalegin egin dira Euskal Herrian kalitate zigilua erantsiko zaion ogi jakin bat martxan jartzeko. 2017an, Euskal Okinen Federazioak, Garlan, Arabako Nekazarien Kooperatibak eta Hazi Fundazioak, zigilu hori errealitate bilakatzeko proiektua abiatu eta Basque Label Okindegiak elkarte sortu zuten.

Proiektu horren ondorio da 2020ko urrian aurkeztu zuten Euskal Ogia, eta elkarte koordinatzailea den David Fernandez esanetan, hainbat arrazoiengatik da berezia: “Sistema integratuekin ekoizitako Arabako gariarekin egina da eta garai batean egiten zen bezala, guk ere prozesu geldoa errespetatzen dugu. Ogia ondo puztu dadin, okin gehienek 17 orduko hartidura ematen diote ogiari, gehigarriak eta kimikoak erabiltzea debekatuta daukagula”.

Arabian gariaren hazkuntzara 25.000 hektarea bideratuta egon arren, gari gehiena abereen bazkarako eta galletak egiteko erabiltzen dute. Okinaren ofizioaren pausu guztiak errespetatzeaz gain, joera hori aldatzea ere bada elkartearen beste helburuetako bat.

Kate bereko kide

Nekazariak eta okin tradizionalak harremanetan jartzea da Basque Label Okindegiak elkartearen misio nagusia eta gariaren laborantzatik guk geuk ogia erosi arte, ez dira gutxi igaro beharreko mailak. Arabako nekazariak garia sistema integratuekin landu ostean, Hazi Fundazioak gari horren kalitatearen kontrola egiten du. Behin azterketa eginda, elkarte bera da garia iringileetara eramateaz arduratzen dena. Okinak emango dio azken ukitua ogiari, betiere elkarteak ezarritako gutxieneko baldintzak errespetatuz.

“Gehigarriak eta kimikoak erabiltzea debekatuta daukagu”



“Tokiko ekoizle guztiekin sinergiak bateratzeko modu bat eskaintzen du Euskal Ogiak”



Deustuko Parriaundi okindegiko Euskal Ogiaren stand-a.

Guztira 4 ogi bereiz daitezke Euskal Ogi a zigilupean: ogi barra, txapata, ogi biribila eta aurkeztu berri duten osoko ogia.

Kaleko kontsumoan dago koska

Euskal okin edo okindegi tradizionalaren sektoreak, auzo bakoitzean, produktuari eta ofizioari prestigioa emateko proiektuetan parte hartzeko joera handia izan du beti David Fernandez arabera, Frantzia okindegian lan egin ahal izateko bost urteko prestakuntza beharrezkoa da, Espainiako Estatuan ordea, ez dago lanbide hau babes-ten duen legerik. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko okin eta okindegi asko onartu dute produktuaren kalitatea bermatuko duen proiektu honetan parte hartzea, Parriaundi obratzailea barne. Javier Urrutia Parriaundiko zuzendaritza taldeko kidea da eta honen arabera “tokiko ekoizle guztiekin sinergiak bateratzeko modu bat eskaintzen du Euskal Ogiak, laborariek, ekoizleek eta saltokiek parte hartzen dutelako prozesuan, besteak beste”. Harrerari dagokionez, jen-

de askok egin du ogi tradizionalaren alde, eta hori “kalitatezko ogia gustuko dutelako” dela azaldu du Urrutiak. Hala eta guztiz ere, ogi barra batek baino errotazio txikia du oraindik Euskal Ogiak.



Blas de Otero 45. zenbakian dago Parriaundi okindegia.



Euskararen Etxea
Zatoz!

www.euskararenetxea.eus



Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81
E-posta: info@euskararenetxea.eus
Metroa: San Ignazio > Lekeittio Irteera.



Euskal Ogia.

Obratzailea 1967. urtean martxan jarri arren, Deustuko Blas de Otero kaleko Parriaundi okindegiak 20 urte daramatza gutxi gorabehera eguneroko jaki hau saltzen. Azken urte hauetan eman den ogiaren produkzioaren ugartzearen ondorioz, salmenta zaildu zaie-la ukaezina da. “Inguruan supermerkatu batzuek ogia salmentarako erakargarri gisa erabiltzen dute, eta horrez gain beste saltoki batzuek euren eskaintzari ogi azkarraren eskaintza ere gehitzen diote. Ezinezkoa da horrekin lehiatzea”.

Ogi merke eta arinen agerraldiarekin, ogi tradizionalaren kontsumoa batez ere pertsona helduetan ematen dela baieztatu ahal izan dute, Urrutiaren hitzetan “ohiko ogiaren kontsumoa adineko pertsonetan ematen da batez ere, alde batetik ogia okindegian erosi nahi dutelako eta bestetik kalitatezko ogia bilatzen dutelako”.

Parriaundiko zuzendaritza taldeko kideak ogiaren kontsumoari buruz esandakoak inguruan baieztatu nahi izan ditugu. Hauek dira egingdako ikerketa txikiaren emaitzak:

[1. pertsona] 26 urteko gazte prekararioak etxe azpian duen gozotegian edota supermerkatuan erosten du ogia egunero. Bi saltokiak bere etxetik gertu daudelako erosten du ogia bertan.

[2. pertsona] 87 urteko pertsona batek ogia auzoko okindegian erosten daramatza hainbat urte. Bertoko ogia gustoko duelako erosten du ogia bertan.

[3. pertsona] 31 urteko langileak ez du ogirik kon-tsumitzen. Ogia erosi beharko balu etxe azpian duen gozotegian erosiko luke.

[4. pertsona] 25 urteko gazte ez prekararioak ogia supermerkatuan edo auzoko dietetikan erosten du bertan duten eskaintza zabalagatik. Aldi berean, dietetikan gehigarririk ez duten ogia saltzen dutelako gustuko du bertan erostea.

[5. pertsona]: 53 urteko ikasleak ogia supermerkatuan edota gozotegian erosten du. Honen ustez supermerkatuko zein gozotegiko ogia merkeagoa izateaz gain goxoagoa ere bada.

Nutrizioaren aldetik, nolako eragina du ogi “eskas” batek gure gorputzean?

Hasieran esan bezala, Euskal Ogiak baditu bete beharreko baldintza batzuk Euskal Ogia zigilua erantsi ahal izateko. Arabako garia erabili behar izateaz gain, guztiz debekatuta daukate ogiari gehigarriak botatzea hartidura arintzeko, eta okin gehienek 17 orduko hartidura ematen diete ogiei. Ainhua Maiztegi nutrizionistaren hitzetan, “ogiaren lehengaia bezain garrantzitsua da hartidura prozesua kalitatea zehazteko. Izan ere, ogi batek ama oreka izateak ez du bermatzen inolabait ogi horri hartidura motela eman izana, eta supermerkatu kate handiek hutsune legal hori erabiltzen dute euren onura ekonomikorako eta aldi berean, kontsumitzailea nahasteko”.

Maiztegiren arabera, nutrizio mailari dagokionez, hartidura geldoak harreman zuzena dauka glukosaren xurgapenaren hobetzearekin eta glutenaren edukia murriztearekin. Halaber, honen ustez ogia kontsumitzeko bi gauza baino ez dira behar: “hartidura prozesu geldoa izan duen eta irin integraz osatutako kalitateko ogi bat alde batetik, eta bestetik, ogia gustuko izatea”.



KAFEA, KOLAKAOA, GAILETAK... ETA BERRIKETALDI EDERRAK!

Ikasturtea hasi berritan, Santik, historia irakasleak, ideia berria proposatu zigun: zentroak kafea, esnea eta gailetak eskaintzea nahi duten ikasleei. Hauek, trukean, taldetxoa osatu eta euskaraz egiteko gogoia baino ez dute ekarri behar. Getxon eta Leioan badaramatzate urte batzuk egitasmoarekin eta jendea pozik omen dago. Horiek entzunda geuk ere proba egitea erabaki genuen eta, egia esan, gero eta gustorago gabiltza.

Testua eta argazkiak: Ibarrekolanda BHI



Dinamika sinplea da: patio ordua baino apur bat lehenago bi ikasle –irakasle baten laguntzarekin- kafea prestatzera eta mahaia atontzera hurbiltzen dira. Sabeleko zuloa berdindu eta hamaika kontuz aritu ondoren, bikote bera arduratzen da dena jasotzeaz eta harrikoa egiteaz. Ah, ia ahaztu zaigu: tarteka parte-hartzaileen batek etxean egindako bizkotxoa edo madalenak ekartzen ditu. Imajinatu ahal duzuenez, gosarien maila zein erabiltzen

den euskararena gorantza doa etengabe... Hona hemen zenbait testigantza:

[Ariadna Gonzalez] “Astean behin patio orduan gehiegi ikusten ez ditugun kideekin kafea eta kolakaua hartzea esperientzia dibertigarria iruditu zaigu. Guztion artean hainbat gauzei buruz elkarrizketak euskaraz izatea esperientzia interesgarria izan da, oso gomendagarria.



Gure kasuan gogoekin itxaroten dugu astearteko patioan kolakaua eta kafea hartzeko; gainera, irakasleen presentziak interesgarriagoa egiten du, hitz bat euskaraz esaten ez dakigunean haien laguntza jasotzen dugu, harreman eta giro ona sortzen da, eta beti pasadizoak edo gauza barregarriak kontatzen ditugu. Dinamika honek arduratsuagoak izaten laguntzen digu, guk antolatuta eta prestatu behar baitugu dena.”

[Irene Agirrezabal] “A, E eta G taldeetako ikaskide batzuk asteazkenero biltzen gara kafe orduan. Eguneroko gaiei buruz hitz egi-

ten dugu, hots, Berria egunkarian edo telebistan ikusi dugunari buruz. Batzuetan, eztabaida entrenigarriak ditugu irakasleek proposatzen dituzten gaiei buruz. Beste batzuetan, berriz, bakoitzak bere ondokoarekin elkarriketa desberdinak ditu. Gainera, noizbehinka bizkotxoak edo gailetak etxetik ekartzen dira. Nire ustez, berbakafea euskaraz hitz egiteko eta jendearekin harreman-tzeko ideia bikaina da.”

[Ane Larrea] “Aurten Ibarrekolandan berbakafea proiektua sortu da, asteko egun batean patioan elkartzen gara, eta gosaltzen dugun bitartean euskaraz hitz egiten dugu. 1F taldekook proiektu hau egingo zela entzun genuenean asko pentsatu gabe taldeko guztiok izena eman genuen. Asko garenez bitan banatu gara, eta batzuk astelehenetan joaten gara eta beste batzuk ordea, ostirale-tan, 28 pertsona baikara klasean. Berbaka- fea askorentzat ohitura bat bihurtu da izan ere, asteko egun bat horretarako gordeta daukagu. Klasean proiekturen bat prestatzen geratu behar garenean, pena handia ematen digu berbaka-kafera huts egiteak. Gainera, klasean oso giro ona dagoenez, primeran pasatzen dugu bai gure artean bai irakasleekin hitz egiten, eta honen bidez, klaseko kuadrilla txikiak elkartu egiten gara”.





ITSAS-ISTRIPUA OLABEAGAN (1893)

Arratsaldeko bostak jo eta gero, Cabo San Vicente baporea ibaian gora zetorren, pal-pal, Olabeagako kaietarantz, Seebuld zama-ontziaren alboan atrakatzera. Orduan gertatu zen ustekabe lazgarria.

Testua: Hektor Ortega



Ibaizabaleko itsasadarra ontziz mukuru beteta ageri da XIX. mendearen amaierako argazki eta margolanetan. Bilbo eta Portugalete arteko zati osoa kanalizatuta zegoen eta bapora jario etengabeari gabarren eta manda batetik bestera igarotzen ziren batelen joan-etorria gehitu zitzaion. Trafiko handiko urak ziren haiek, horrek dakarren arriskuarekin. Horrela gertatu zen 1893ko azaroaren 10ean. El Nervión egunkarian jaso zuten bezala kontatuko dugu guk ere. Egun hartan Seebuld ontzia Olabeagako kaian zegoen, Abandoko aldean (ordurako Bilbo zen,

anexioaren ondorioz). Ikatza ekarri zuen eta egunak ziren hogeita hamar gizonetako multzo bi txandaka ari zirela zamaketa lanak egiten. Bada, arratsaldeko bostak jo ondoren, gizonetako batzuk ibaiaren bestaldera, Deustura alegia, itzultzeko txalupa hartu zuten. Hamabost bat ziren. Lekukoek kontatu zuten, artean nahikoa ilun zegoen, ez zen piperrik ikusten, eta pasaiake batelak ez zeraman argirik. Horregatik ez ziren kargutu ere egin Cabo San Vicente bapora pal-palean, alegia, geldiro-geldiro zetorrela ibaian gora, Seebulden alboan atraka-

tzeko asmoz. Ilunaren ilunaz, ontzikoek ere ez zuten langileak zekartzan batela ikusi... azken unera arte. Eta, hain zetozen geldiro, ezen azken metroan girada emateko astia eduki zuten, alegia, ontzia apur bat desbideratzeko, eta, horrela, txaluparen kontrako talka saihestu zuten.

Baina beranduegi zen. Bateleko gizon askok, baporeak haien kontra joko zuela ikusita, uretara egin zuten jauzi. Horietako batzuen zoritxarra! Igeri egiten zekitenak lehorrera heldu ziren. Txalupan gelditu ziren guztiak ere bai, txalupa ez baitzen irauli. Baina uretan barreiatu zirenetatik hiru han ito ziren. Eta eskerrak inguruetan zebiltzan batelak laguntzera hurre-ratu ziren. Hasieran esan dugu. Hura zen ontzi jariora Ibaizabaleko uretan! Egin kontu: han zen portuko gidarien (praktikoen) batela ere, Rosario baporearekin zetorrelako. Ontzi txikiok ur azalean ikusi zituzten gizonak jaso zituzten.

Hiru hil, jaio bi

Hiru lagun ito zen istripuaren ondorioz. Gizon bi eta txotxo bat. Hirurak beharginak. Manuel Seiro Sanchezek 38 urte zituen, ezkonduta zegoen eta ume biren aita zen. Deustuko elizako agiriak zuzenak badira, hirugarrena istripua gertatu eta zortzi hilabetera jaio zen. Manuel jarri zion izena bere amak, Felipa Sanchez Artadiuk.

Isidoro Gallo Gonzalez, berriz, 26 urteko gizona zen. Cruz Palacios Llorenterekin ezkondu zen 1892ko uztailean Deustuko elizan. Andrea haur-dun zegoen senarra ito zenean. Abenduaren

7an eman zioten bataioaren grazia jaio berriari Done Peri parrokian. Hari ere aitaren izena jarri zion amak: Isidoro.

Hiruretan gazteena Diego Anizeto Goitia Beraza zen, 15 urteko mutila. Bera ere deustuarra, Goiri Aldekoa baserriko semea. Etxe hori gaur egun Arangoitiko eskola dagoen eremuan zegoen, zutunik dirauen Agirre baserritik hurbil. Handik goitik Ibaizabaleko meandroen eta ontzien joan-etorrien gaineko ikuspegi ederrak edukiko zituzten.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



Deustun 2020an ospatu genituen inauteriak azkenekoz. Bi urte beranduago, lortu dugu berriz auzoko kaleak girotzea, beraz lehenik eta behin eskerrik asko antolatu ditugun ekintzetan parte hartzeagatik.

Testua: Deustuko Jai Batzordea **Irdiak:** Deustuko Jai Batzordea eta Deustu Bizirik

Ostiralean Deustuko kuadrillek filmen eta marrazki bizidunen gaia hautatu zuten elkarrekin kuadrillen gaua ospatzeko. Arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Game Of Txaranga elektrotxarangaren kontzertua izan genuen Done Petri plazan, euriak ez baitzuen auzoko kaleetatik ibiltzea ahalbidetu.

Jakin badakigu larunbata dela inauterietako egun luzeena. Hori dela eta, goiza zein arratsaldea ekintza ezberdinez betetzen saiatu gara aurten ere. Deustuko Ikastolako Gure Herria dantza taldeak, Lantzeko kalejira egin zuen auzoko kaleetan barrena eguerdiko 12:00etan. Ostean, gaztetxoentzako hainbat tailer eta ekintza izan ziren Done Petri plazan. Ohitura den bezala, Tintigorri konpartsak bertan geunden konpartsa, kuadrilla eta talde guztientzako bazkari goxoa prestatu zuen, guztira 250 pertsona elkartu ginen! Arratsaldean Tarisko Band taldearen kontzertuaz gozatu genuen eta ostean Sakatu elektrotxarangaren eritmorra auzoko txoko ezberdinak bisitatu genituen. Igandean desfile nagusia abiatu zen San Felizisimo elizatik Berriz bideko plazaraino, eta bertan, sari banaketa egiteaz gain, 7kale taldearen kontzertua ere izan genuen, aratusteei merezitako amaiera emateko.

Hasieran esan bezala, pozik gaude hainbeste denboraren ostean inauteriak antolatu izanagatik, alabaina, badira aldi berean kezkatzen gaituzten gaiak ere, auzoan daukagun espazio publiko gabedia adibidez. Bilboko Udalak Done Petri plazaren berriztatze proiektua aurkeztu zuenean, bestelako proposamen asko egin genituen espazio zabalak mantendu eta leku estaliak bermatzeko,

nekatuta baikaude gure egitaraua euriaren mende izateaz. Ia urtebete igaro da Done Petriko lanak hasi zirenetik eta esan beharra daukagu frontoia- ren aldean dauden lorategiek izugarri murriztu dutela lehen bertan zegoen espazioa. Horren adibide da desfilearen sari banaketa plazatik kanpo antolatu izana. Deustun oneoro ekintzak antolatzen dituzten 3 aisialdi talde baino gehiago eta hainbat elkarte, talde eta konpartsa ditugu. Ez da txikia auzoan dagoen mugimendua eta horrexegatik uste dugu ekimenak antolatzeko espazio egokiak behar ditugula.

Azkenik, martxoaren 11tik 20ra bitartean Deustuko Jaiak ospatuko ditugu, adin eta gustu guztietarako ekintzak antolatzen ari gara eta oraingoan ere zuen parte hartzea espero dugu, hori baita gure ekintzen helburu nagusia, herritarrei ekintza anitzak eta doakoak eskaintzea. Eskerrik asko Deustuko Jai Batzordea modu batean zein bestean babesteagatik!



INAUTERIAK OSPATU DITUGU DEUSTUN



berbetan

ALAZNE ASTORGAekin

Aktorea

“Aktore izan nahi dut denbora

Gazte hasi da Alazne Astorga erriberarra aktore lanetan, prestakuntza espezifikoa jaso baino lehen ere. Antzezle gisara bere burua onartzea, ordea, ez zen bide zuzena izan. Bere burua ezagutzeko eta beste hamaika Alazane aurkitzeko balio izan dio antzerkigintzak eta berriki murgildu den zinematik. Bideaz eta prozesuaz aritu gara, besteak beste, elkarrizketa honetan.



Testua: Jone Gartzia Guerra

Argazkiak: Ecuador Etxea

osoan, lan baldintza onekin”

Nola hasi zinen antzerkigintzan?

Egia da txikitatik ikasi dudala musika-hizkuntza, musika-tresnak jo ditut, antzerkia eta dantza egiten nituen... Baina beti eskolaz kanpoko ekintza bezala. Profesionalki 2019an hasi nintzen. Irakasle-ikasketak egiten ari nintzen baina ez nengoen batere pozik, ez nekien zer egin nire bizitzarekin. Egia esan, hezkuntzan sartu nintzen umeak gustatzen zaizkidalako, besterik ez. Ni beste ume bat naiz -barreak-.

Zerk bultzatu zintuen apustua egitera?

Momentu horretan ireki zituzten Pabiloi 6ko Gazte Konpainian sartzeko probak eta apustua egin nuen: karrera utzi eta castinga egin nuen. Hartu ninduten, nire bizitzako lehen castingean! Momentu horretan baietza jasotzea, nire bizitzarekin zer egin erabakitzen ari nintzenez, oso garrantzitsua izan zen. Entseguetan ikusi nuen balio nuela, gustatzen zitzaidala, eta orduantxe erabaki zuen hori zela benetan egin nahi nuena eta bide hori hartzea erabaki nuen.

Inguruan zelan hartu zuten?

Etxean ez zidaten trabarik jarri, baina ikasketak uztea kaosa izan zen etxean; baietz esan zidatela eta balio nuela ikusi zuten arte.

Ikasketarik duzu aktore moduan?

Ni lanean hasi nintzen ikasi aurretik. Beti egin dut dantza eta antzerkia, baina eskolaz

kanpoko ekintza moduan. Orain hasi naiz ikasten. Kabia Teatroko eskolan egin nuen urtebeteko ikastaroa. Orain, Deustuko Mr Jam eskolan ari naiz kantua ikasten, ahotsa lantzeko; izan ere, entrenamendua behar dut asteburu oso batean zehar boloak eman ahal izateko. Bizie zinema eta interpretazio eskolan ere ari naiz zinema ikasten Urko Olazabalekin. Momentuz ikastaroak egitea nahiago dut, Dantzerti bezalako eskola batean sartzea baino, adibidez. Egia esan, lan egiten izugarri ikasi dut.

Zein proiektutan egon zara orain arte?

P6ko Gazte Konpainian bi antzezlanetan egon naiz: *Ubu*, *finantzen errege* eta *Todo saldrá bien*. Gero nire gauzatxoak egin ditut: iragarkiak; pare bat websail; *Larrugorritan* seriea Jone Laspiurrekin, Tabakalerako proiektu bat zena; film labur pare bat ere...

Zer dute komunean?

Gehiengo euskaraz eta emakumeekin egin ditut. Ez dakit hori den nire patua hemen edo zer, baina horrela izan da.

Zelan dago panorama euskarazko ikus entzu-nezkoetan?

Gero eta gauza gehiago egiten dira euskaraz, baina egia da euskarazko proiektu bat aurrera eramateak gaztelaniazkoek baino traba gehiago dituztela. Antzerkian ere gauzak egiten dira euskaraz, baina beti egiten dira euskaraz eta gaztelaniaz, oso gutxi

“Lan baldintzak okerragoak dira emakume izanda, eta batez ere Euskal Herrian”

berbetan

ALAZNE ASTORGArekin

▷ ▷ SAKONEAN

“Hau ez da lehiaketa bat, dantza bat da”

Zein izan da bizi duzun unerik onena?

Uburen estreinaldia, nire lehenengo obra. Amaiera itzela izan zen, ikusleek txaloeekin elikatu ninduten. Jendea altxatu zenean erdiko ilaran nire familia osoa eta azkenengoan lagunak ikusi nituen. Lasaitasun momentu bat izan zen, aktore bezala nire burua onartzeko. Asko hunkitu nintzen eta sekulako indarra eman zidan.

Eta txarrena?

Ez da momentu bakarra egon, mundu hau oso zaila da. Niri ez zait lehiakortasuna gustatzen, ez naiz besteekin lehiatzen, nire buruarekin baizik, baina egunak daude. Nik uste emakumeok zailago dugula, biologikoki (hormonen gorabeherengatik) eta emakume izate hutsagatik. Unerik zailenak etxean izan dira, nire burua epaitzen, burua jaten... Baietz baten ostean ezetz asko datoz eta zure burua presatatu behar duzu horretarako. Egia da jende oso politarekin egin dudala topo, baina bada besterik ere, zinemaren munduan batez ere. Komentario desatseginak entzun behar izan ditut, eta blokeatu naiz horien erruz, eta gaizki pasatu dut.

Zer esango zenioke ibilbide hau hasi nahi duen pertsona bati?

Bere gorputza eta burua entzun ditzala. Benetan hori nahi baldin badu, aurrera egin dezala. Zaila da, oztopo pila bat topatuko ditu bidean, hori egia da. Harriz beteriko bidea da baina merezi du. Interpretazioak, bai zinemak eta antzerkiak asko kentzen digu, baina ematen diguna itzela da. Lan egin behar da, hor egon behar da momentu guztietan, gauza asko sakrifikatu dira, eta hori zaila izan daiteke gaztea zarenean. Eta hau ez dela lehiaketa bat ere esan nahi nioke, hau dantza bat da. Nik asko ikasi dut nire lankideekin, ingurukoekin babestu dadila eta aurrera egin dezala.



egiten dira soilik euskaraz eta, egiteko-tan, lan baldintzak ez dira horren onak eta askoz lan gehiago egin behar da.

Zein traba aurkitu dituzu?

Ni ez naiz zuzendaria, aktorea naiz eta ni proiektu batera heltzen naizenerako traba guztiak jarrita daude. Nik pairatu izan ditudanak ordaindu gabeko lanak edo lantalde txikiagoak izan dira.

Eta mundu horretan sartzeko, trabarik izan duzu?

Zaila da lekua egitea, kontaktuak izan behar dituzu eta jendea ezagutu. Nik ez dakit zortea izan dudan edo ni egon naizen horren atzetik. Baina, proiektu handi batean sartzea zaila da, kontaktuek atea zabaltzen dizkizute baina ez denak. Gainera, lan baldintzak okerragoak dira emakume izanda, eta batez ere Euskal Herrian.

Baduzu ametsik?

Orain zinema ikasten ari naizenez, pelikularen batean parte hartzea gustatuko litzaidake, gai potente batekin, publikoa eta ni neu pentsaraziko gaituena.

Baina, egia esan, honetaz bizitzearekin konformatzen naiz. Nahi dudana da aktore izatea denbora osoan, lan baldintza duin-ekin, eta beste motako lanik egin behar ez izatea etxea ordaindu ahal izateko.

Zinema edo antzerkia, zer nahiago duzu?

Orain zinema ikasten nabil. Asko gustatzen zait kamera baina antzerkia askoz errealagoa da, eta agertokian jendearen berotasuna sentitzea... itzela da. Zineman gauza asko kontrolatu behar dituzu, nora begiratu, nora ez... baina, egia da, asko gustatzen zaidala.

Markatu zaituen obraren bat?

Gazte Konpainian *Ubu*, *finantzen errege*, nire lehenengo antzezlan izan zelako. Oso obra polita izan zen, jende politikarekin. Berezia izan zen. *Larrugorritan* seriea grabatzean beste Alazne bat ezagutu dut, jende asko ezagutu dut eta asko ikasi dut.

Nolako pertsonaiak gorpuztu izan dituzu orain arte?

Ubu kenduta, *alter ego*-aren *alter ego*-a zela, batez ere emakume errealak, indartsuak eta ahalduak egin ditut. Ez dakit kasualitatea den edo nik erakarri ditudan pertsonaia horiek.

Nola prestatzen dituzu?

Antzerkian zailagoa da, publikoari tranpa egitea zailagoa delako. Baina, zineman, adibidez, zure bizitzako pasarteak ekar ditzakezu gogora islatu behar dituzun emozioak azalean bizitzeko. Zinema eta antzerkia bizitza dira, oso kasu gutxitan ez ditugu bizi horrelako emozioak. Horregatik, momentuan nire pertsonaiak sentitu behar dituen emozioak sorrarazten dizkidaten pasarteak gogoratzen ditut. Adibidez, nire pertsonaiak amorrua sentitu behar badu, amorrua sentiarazten didan borroka bat hartzen dut eta pertsonaiara eramaten dut. Ez du zertan Stanislavski metodoa izan behar, tratu txarrak jasan dituen emakume bat gorpuzteko tratu txarrak jasandako emakume bat bezala sentitzea.

Zer genero landu duzu gehienbat?

Beti egin dut drama. Pare bat websaitetan komedia egin dut, baina batez ere dramari aritu naiz. Niri drama gustatzen zait, eta asko gustatzen zait pertsonaietan inplikazio emozionalak egotea. Adibidez, orain tratu txarrak jasan dituen emakume baten papera prestatzen nago. Lan gehiago eskatzen dute, baina gustatzen zaizkit horrelako pertsonaiak.

Baduzu erreferenterik?

Batez ere, nire lankideak; gainerako aktoreak, zuzendariak, gidoilariak... Oso behatzailea naiz, eta antzeztan ez nagoenean begiratzea gustatzen zait. Asko ikasi dut horrela. Oso jende politikarekin egin dut topo eta haiek izan dira nire erreferenteak.

Zerbait gehitu nahi zenuke?

Bai; eskerrak eman nahi dizkiot Erriberari, berari esker naizelako naizena. Ur Artean aisialdi taldean egondako urteak aktore entrenamendua izan ziren, konturatu gabe. Nik uste dut denok dugula sortzeko zerbait, eta nik hor deskubritu nuen nire burua, hein handi batean. Umea nintzen eta ez nintzen konturatzen, baina kaxak desblokeatzen nengoen etengabe. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiot Erriberari eta Ur Arteani askatasunez bizi ahal izan naizelako eta hori bera sustatzen delako. Txikitatik hori bizi ahal izatea, Bilbo bezalako hiri batean, oso polita da. Hemen zoramen oso sano bat dago eta horregatik naiz naizen Alazne.

“Asko gustatzen zait pertsonaietan inplikazio emozionalak egotea”



HEZKUNTZA

Deustuko Botikazar institutuko ikasle batek Euskadiko Olinpiada Matematikoa irabazi du

Joan den urtarrilaren 21ean ospatu zuten Euskadiko Olinpiada Matematikoa. Unai Cuerdo Agirrek, Botikazarreko ikasleak, eskuratu zuen lehenengo saria eta martxoaren 31tik apirilaren 1era bitartean Palos de la Fronteran ospatuko den Estatuko Olinpiada matematikoko azken fasean parte hartuko du, Donostiako St. Patrick 's English School ikastetxeko eta Getxoko Julio Caro Baroja institutuko bi ikaslerekin batera. Fase horretan sailkatzen diren lehenengo seiak, uztailean Osloan ospatuko den Nazioarteko Matematika Olinpiadan parte hartuko dute. Aurtengoa Euskadiko Olinpiada Matematikoaren 58. edizioa izan da, eta EAEko 12 ikastetxetako 25 ikasle parte hartu dute, 17 mutilek eta 8 neskek.

EUSKARA


Berbaizuren 'Udaberri kulturala' martxan

Datozen hilabeteetan Deustualdeko auzoak kulturaz betetzeko asmoz, Berbaizu Euskara Elkarteak hainbat hitzordu antolatu ditu Deustuibarrako Bizinahi auzogunean, San Inaziko Errondoko auzo etxean eta Deustuko udaltegian, besteak beste. 'Udaberri Kulturala' izendatu duten ekimenak 10 ikuskizun barnebiltzen ditu eta guztira 7 kultur genero uztartuko ditu: dantza, bertsolaritza, musika, literatura, zirkua, zinema eta antzerkia. Joan den otsailaren 17an eman zioten hasiera ekimenari, Errondoko Auzo Etxean antolatutako bertso saio batekin. Antolatzaileen arabera, "udaberri kulturala aukera paregabea da euskarazko kulturaz gozatzeko".

MEMORIA

Yolanda Gonzalezen audioa

Bere erailketaren 42. urteurrenean Deustuko Erriberako auzokideek Yolanda Gonzalez Martin oroitu dute bere izena duen plaza txoan. Langileen Alderdi Sozialistako kidea zen eta 1980ko otsailaren 1ean, 19 urte zituela, Batallón Vasco Español erakunde ultraskeuindarrak tiroz hil zuen Madrilen. Urteroko ekitaldiaz gain, aurtun Kaletarrak plataformak Gonzalezen biografia biltzen duen lau minutuko podcasta aurkeztu du. Audioak Mariano Sanchez Solerri egindako elkarrizketa biltzen du, Gonzalezen laguna eta militantziako kidea izan baitzen.



LANA

37 urteko langile bat hil da Deustun aldamiu batetik erorita

Francesc Macià kalean eraikuntza-lanetan zebilen bitartean izan zuen istripua otsailaren 19an. Seigarren pisu batetik erori zen ezagutzen ez diren ondorioengatik eta Osalanez ikertuko du gertatutakoa. Euskal Herrian lan-istripu baten ondorioz hiltzen den bederatzigarren langilea da, otsaileko bigarrena hain zuzen. Lan heriotza dela eta, hainbat elkarretaratze egin dituzte azken egunotan Bilbon

zein Deustun. LAB sindikatuak mobilizazioa egin zuen otsailaren 23an Botikazar parkean. UGT-k bere aldetik, Colon De Larreategi kaleko egoitza aurrean elkarretaratzea deitu zuen egun bat lehenago. Bilboko Udaleko talde politikoek Osalani eskatu diote "beharrezko bitarteko guztiak erabil ditzala gertatutakoa argitu eta hartu beharreko neurriak hartzeko".



Urtea: 1957

Txema Luzuriaga

Casado y Cia. enpresa

Irudi honetan, Torremadariagako eraikinen alboan, Beltran y Casado y Cia. enpresaren pabiloiak ikus daitezke. Enpresa hark hainbat etxetresna elektriko egiten zituen eta azken garaian Gogomovil autorako piezak egin zituen baita ere. Gaur egun pabiloiaren ordez Deustuko polikiroldegia dago bertan kokatuta. Argazkian, Jon Arrospeideko landak, Euskalduna auzoa, La Salle ikastetxea eta Erriberako kanala ikusten dira. Argazkia Foatek utzitakoa da.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com


△ ∇ △ L △
TATTOO STUDIO

A X
T S

Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



Optica
Avenda

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

**ATXURI
TABERNA**


Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST

kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Yoki Berrri
Taberna
Good vives!

Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun

Tintoreria
La Flor

Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak... garbitzen ditugu



artez euskara zerbitzua

Probatu herrizki.eus

ANDROID APP Google play App Store

ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA BFE

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net

Matxintxu
aek ■ euskaltea

Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net


RONDOKO HORTZ KLINIKA

Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia

PADI
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97



Bitxidenda

Sabin
Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS KM
CERRAMIENTOS

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23



Gizonen eta emakumeen arteko soldata arrakala urtean 7200 euro ingurukoa da EAEn. Zer deritzozu?



**Ander
Deustu**

Txarto iruditzen zait. Ikusi beharko genuke gainera lan-elkarrizketetan jasan behar dutena edota lana lortzeko dituzten zailtasunak.



**Maite
Bergara**

Soladata arrakalak argi erakusten du oraindik ere emakumeentzako izan ohi direla lanik prekarioenak eta baldintzarik kaskarrarenak.



**Garazi
Deustu**

Sektore feminizatu eta maskulinizatuen artean arrakala handia dago gaur egun. Nire ustez sektore feminizatuak, zaintza-lanak batez ere, duintzea eta demokratizatzea da konponbidea.



**Pablo
Basauri**

Txarto iruditzen zait. Bidegabea da sektore feminizatuak izatea prekarietate handia jasaten dutenak.



**Anne
Gasteiz**

Nire ustez garrantzi gutxi ematen zaio arazoari eta ez da ezer egiten konpontzeko, horregatik urte urte berdin jarraitzen dugu.



**Laura
Deustu**

Lotsagarria da. Are gehiago emakumeok "ezkutuan" egiten ditugun zaintza lan ez ordainduak kontuan hartzen baditugu. Beste arrazoi bat hurbil daukagun M8an kalera ateratzeko.



harkua bete herna

>> ANTZERKIA

EMAKUME ZIENTZIALARIAK HIZPIDE DITUEN ANTZEZLANA AURKEZTU DU EIDABEK

Gaztetxo eta familiei zuzenduta, Eidabek aurreiritziakin apurtzeko antzezlan berria aurkeztu du.

Testua: PREST!

Argazkiak: Eidabe

Piztu emakumeon energia du izenburu Imanol Ituñok zuzendutako lan berria. Emakume zientzialariak baino, emakumeak ere zientzialariak izan daitezkeela erakustea da obraren xede nagusia. Izan ere, Ituñoren esanetan “aurreiritziak gaitzuta ditugula pentsatzen dugun arren, badira oraindik azaldu eta erakutsi beharreko kontuak”, eta horretara dator Eidabekin batera ondutako antzerkia. “Eskoletan oraindik badira gizon zientzialariak eta emakume erizainak marratzen dituzten ikasleak, eta antzerki hau baliatu nahi dugu ere bakoitzak nahi duela ikas dezala adierazteko. Gainera antzerkiak Marie Curiek bitzakoarekin paralelismo moduko bat egiten du. Curie zientzialariari hasiera batean ez ziotelako kimika bere hizkuntzan ikasten utzi eta hainbeste borroka egin ostean bi Nobel sari eskuratu zituen”.

Hasiera batean Mari Curie zientzialariaren inguruko biografia izango zela azaldu du Ituñok, gerora ordea, gaztetxoentzako zerbait “erakargarriagoa” izatea era-

baki zuten “ez genituelako ikusleak dokumentazio datuekin zoratu nahi”. Obra, zientzia kongresu batean kokatzen da eta eszenografiak horretan ere lagunduko du zuzendariaren arabera: “kongresuetan jartzen dituzten atrila dago, baita kolore korporatiboa duen logotipo bat ere”. Ikusleek, kongresu hartara doazen zientifikoen papera betetzen duten bitartean, oholtza gainean agertuko den zientzialaria emakumea izango da. Gidoiak emakumea beharrean gizona espero zutela azalduko du eta une horretatik aurrera, kongresua atzean utzi eta antzerkiari bidea emango diote.

Piztu! emakumeon energia antzerkia Eidabek ekotzitakoa da. Zuzendaritza eta gidoia Imanol Ituñok egin ditu eta Tania Fornieles eta Nahikari Rodriguez izango dira bi antzezleak. Eszenografia Maria Casanuevaren eskutik doa eta argazkietaz Ilara arduratu da. Azkenik, jantziak La Rucaren eta Eidaberen ardura izan dira.



Piztu Emakumeon Energia antzezlanaren irudi bat.

URIOLA.EUS WEBGUNEA BERRITUTA

Bilboko Uriola agerkari digitalak webgunea berritu du. 2014ko martxoan sareratu zen lehenbizi eta ordutik bertsio berdina mantendu du. Plataforma berria mugikorreko pantailara hobeto egokitzeaz gain, bestelako aukera berriak eskaintzen ditu: grafiko eta mapa interaktiboak argitaratu eta lehiaketak sortu, besteak beste.

Berrikuntzekin jarraitzeko, eta plataforma berriaren bultzadaxoa baliatuz, eguneko albisteen laburpena ere egiten hasi dira sortu berri duten Telegram kanalaren bitartez. Azken orduko albisteak ere bertatik bidaltzen dituzte. Eskaneatu QR kodea eta batu zaitetz!



MENDEA PASATXO MUSIKA IRAKASTEN

1920an sortutako Juan Crisostomo de Arriaga musika kontserbatorioak bere mendeurrena aurten beteko du pandemia dela eta, “Ehun urte, milaka soinu” lelopean.

Testua: Lur Mallea **Argazkiak:** Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioa



Shadieva Quintanak hiru urte zituenetik jotzen du biolina. Egun 18 urte ditu eta azken hirurak Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioan eman ditu ikasten. Gustuko du zentroa. 2006an Ibarrekolandan zabaldutako eraikina lehen aldiz zapaldu zuenean harrিতa geratu zen. Instalazioekin txundituta, “aiene” atera zitzaion barru-barrutik. Egun, asteen lau egun ematen ditu bertan. Bere hitzetan, hautazko ikasgaien artean “aukera zabala da” eta “handia irakasleen maila”. Batik bat, biolin barrokoa du atsegin, orain arte ikasteko aukerarik izan ez duen ikasgaia.

Eta, nola ez, kontserbatorioko “orquestra sinfonikoa”. Han eta hemen jotzeko aukera ematen die ikasleei orkestrak, baina zoritxarrez, pandemiak bertan behera utzi ditu azken bi urteotako kontzertuak. Aurrera begira, pixkanaka kontzertuak berreskuratzekoak dira.

Bere azken urtea du Shadievak Ibarrekolandan. Ondo bidean, biolinarekin jarraitu eta goi mailako ikasketak egingo ditu. Horretarako zerrenda luzea du. Alemania, Madril edota Donostiako Musikene zentroa ditu, besteak beste, begiz jota.

www.pabellon6.org

REY DESNUDO Y CHICO MUERTO

martxoaren 04tik
martxoaren 27ra

Testua eta zuzendaria
INIGO COBO

Antzezleak
SARA BARROETA, JON CASAMAYOR,
ITXASO GIL, JOSH ORTIZ DE ZÁRATE,
ARNATZ PUERTAS



Achucaroren emanaldia kontserbatorioaren mendeurrenean.

Shadieva da Arriaga kontserbatorioko 500 ikasleetako bat. “Onenetako”, Maite Aurrekoetxea kontserbatorioko zuzendariaren esanetan. Harro dago Maite bere ikasleekin. Bereziki ikaslerik ez dutelako falta. Bertan ikasteko eskaria handia denez -EAEko kontserbatorio profesional handiena da-, ikasleek probak gainditu behar dituzte, eta “dohain onenak dituzten ikasleak aukeratzen ditugu”.

Pandemian

“Sufritu” egiten dute pandemian zehar. “Zein zuzendaritza taldek ez du sufritu”, dio Maitek gaine-rako lankideei begiratuz. Protokoloak direla, aldaketak, berrantolaketa... Oztopoei aurre egiteko modua “norbere eta taldearen energian” aurkitu dute. Irakasleek “sekulako lanarekin erantzunez, ahal izan duten guztia eta gehiago eginez”. Ikasleek ere ondo erantzun dute, “luxuzko ikasleak” izaki. Izan ere, zuzendaritza taldearen esanetan, “zoragarria da eurekin lan egitea”.

Gainera, ez da dena txarra izan. Pandemia halabarrez erabilitako teknologia berriek aukera leihok zabaldu dizkiete. Esaterako, bilerak egiteko bideo-deiak oso baliagarriak dira orain ere. “Bizkorrek eta erosoak dira”, Maite eta lankideentzat. Edota irakasleek grabatutako hainbat bideo ere oso praktikoak suertatu dira. “Irakasteko inertzia berriak aurkitu beharrean egon gara eta gure egunerokora egokitu ditugu”.

Osasun larrialdia pasatuta, 102 urteko kontserbatorioak nahiko eskarmentu pilatu du foru eraikinaren atzealdean sortu zenetik. Barrea artean diote bertako kideek “osasun ona duela eta etorkizun oparoa”.

Ospakizunak

2020ko otsailean Maite Aurrekoetxea eta bere zuzendaritza taldea kontserbatorioaren mendeurrena ospatzeko prest zeuden. Bizpahiru urte lehenagotik dena antolatzen hasiak ziren. “Baina pandemia iritsi zen eta agur”. Joan den irailan, egoera hobetzen ari zela ikusirik ausart jokatzearabaki zuten. Zailena Urkullu lehendakariaren eta Joaquin Achucarro pianista maisuaren agendak bat egitea izan da Maiteren esanetan. Baina lortu zuten. Joan den urtarrilaren 27an bat egin baitzuten Ibarrekolandan.

Joaquin Achucarrok kontzertu “hunkigarria” eskaini zuen. “Goren mailako musikaria da. Dena du, dena lortu du, denen aitortza eta, hala ere, bere borondatea sekulakoa da”. Bi pieza eskaini zituen Achucarrok kontserbatorioko auditorioan. Berataratu zirentzat, “bikaina” izan zen.

Achucaroren emanaldia hasiera baino ez da izan. Kontserbatorioaren mendeurrenak dokumental eta liburu forma ere izango baititu. Eta noski, baita musika forma ere. Martxoaren 14tik 18ra solasaldiak (17:30) eta kontzertuak (19:00) izango dira arratsaldero, ehun urte milaka soinurekin bete-tzeko. “Zorionekoak gara”, dio Maite zuzendariak, “publiko fidela baitugu. Auzotarrek beti erantzuten digute atek zabaltzen ditugunean”.





PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Hanburgesa patatekin

35 urte daramatza Ramon y Cajal kaleko 29. zenbakian Deustuko Herriko Tabernak. Ostiraletan aurki dezakegun afari eskaintza erakargarria izan ohi da Deustuko gazte askorentzako eta hanburgesak eta ogitartekoez gain, plater konbinatuak ere badituzte.

Zailtasun maila: Txikia

Egiteko denbora: 20-30 minutu

Prezioa: 7-9€

Kontu batzuk

Ez da lehen aldia Deustuko Herriko Tabernako eskaintza orrialde haue-tara ekartzen dugula. Ostiraleko kartan hanburgesa eta ogitarteko eskaintza zabala aurki dezakegu 7 eurotan batz bestea. Ostegunetan berriz, ikasleentzako afariak prestatzen dituzte gazte eta ikasleak diren taldeentzako. Eskaintzak norberarentzako oilasko erre bana, entsa-lada eta patatak ditu, baita garagardo zein kalimotxoa ere, dena 10 eurotan, enkarguz.



DEUSTUKO HERRIKO TABERNA

Ramon y Cajal, 29

Astehenetik asteazkenera: 17:00-22:00

Ostegun eta ostiraletan: 17:00-00:00

Larunbatetan: 18:30-00:00



Zelan egin?

Hanburgesak egiteko berakatza, pipermin beltza, gatza eta haragian baino ez dute erabiltzen. Plantxan egiten dituzte. Haragia plantxan dagoela, gazta gainean jarri, desegin arte. Tipula ondo biguntzen dute, erregosi arte. Patatak bertan zuritu eta frijitzen dituzte, etxean bezala.

OSAGAIK

*Letxuga
Tomatea
Tipula
Arrautza
Gazta
Haragia
Berakatza
Pipermina*



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean

**ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO**

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



ANTXON AGIRRE

Gaztea eta kulturzalea

Iruñea borborka

Azken boladan Iruñean murgilduta egon naiz. Joanes Etxebarrik, Sarako euskal idazle eta sendagileak, Euskaldunen hiri buruzagia izenpean laburbildu zuen duela 300 urte Iruñea. Boborka dago hiriburua eta karriketan ere agerian geratzen da badagoela Iruñea euskaldun bat euskal kulturaz gozatzeko eta aldarrikatzeko gogoia duena.

Urtarrilean zabaldu zituen ateak LABAK. Euskal komunitatearentzat zuzenduta dagoen espazioa da eta bazterretik erdigunera eraman dute, hiriaren bihotzera, Gaztelu Plazara hain zuzen. Elkargune izatetik haratago, euskarazko kulturaren erakusleihu izateko anbizioa dauka. Hainbat gaztek sorturiko proiektu zabala da, amesteko eta sareak zabaltzeko ilusioz betea... Deustun, ez daukagu plaza duinik, baina gure artean hainbat sortzaile ditugula ezin da ukatu. Ez al dugu horrelako espazio baten beharrik?

Nafarroara berriro itzuliz, inauterietaz hitz egingo dizuet. Iruinkoak, Iruñeko inauteri euskaldunak dira eta sortzen duten herri-antzezpena hainbat asteko lanaren emaitza da., herritik eta herriarentzako emanaldia da eta dantza, musika, antzerkia eta bertso-larritza uztartzen dituzte.

Amaitzeko, Iruñerrian sorturiko bi musika talde azpimarratu nahiko nituzke. Batetik, Skabidean, doinu karibetarrak Euskal Herriratzten dituen. Talde honen azken lanak "Hiri Zahar Zikina" du izenburu. Ez al da Joanes Etxebarrik Iruñeari jarritako laburdura berritua? Eta bestetik, Ibil Bedi taldeak estilo desberdinak jorratuz maitasuna, galerak eta zalantzak gaitzat hartuta sortzen dituen kantu ederrak.

Doinua: Irun badaukazu zerbait



ITXASO LEJARZA ARGUARRO

Elorri bertso-eskolako kidea

Aspaldi eraiki ninduten,
artean dena zen laino,
ibaiaren alde biak
lotzeko handik honaino.
Egunero bizpahirutan
zabaltzen nintzen goraino,
hamar minututxo luze
denak zain kokoteraino.
Beso biak altxatuta
ia-ia zeruraino,
barkuak sartu zitezen
zuzenean Bilboraino.
Gero guztiak korrika
heltzeko beste alderaino,
ezin baitzitekeen pasa
itxita nengonean baino.

Ikusi dut bost bat urtez
borrokan langileria,
barrikadak ta tanketak,
oldartuta polizia.
Abutzuko egun batez
euriak hartuta hiria,
ibaia haserre bizian,
igota ur-emia.
Baita Bizkaia dotore
jantzita zuri-gorria,
iji ta aja gabarra,
algaraka gure herria.
Jadanik jubilatuta,
garai modernoak itxia,
bizirik oraindik baina,
erne Deustuko Zubia.



Gure ikasleen ahotan

“LEINNen talde-lana eta autolidergoa asko lantzen dira”

*Asier Jimenez Rueda Lidergo
Ekintzailea eta Berrikuntza
LEINN graduako laugarren
maila ikasten ari da
Mondragon Unibertsitatean.*



Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?

Salesianos Deuston egin nuen Batxilergoa. Gaztetatik izan nuen ekintzailetzarako grina, eta nire zaletasunak oso lotuta zeuden teknologiek.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

LEINN ezagutu nuenetik argi izan nuen hau zela egin nahi nuena. Gradu honek nigan sortuko zuen garapen pertsonala zen faktorerik garrantzitsuena. Gainera, bidaia-zale amorratua naiz eta jakin-mina handia daukat.

Nola baloratuko zenuke LEINNen bizitako esperientzia?

Ahaztezina izan da. Egutero hainbat arlo lantzen ditugu eta zure eboluzioa oso azkarra da. Honako trebetasun hauek lantzen dituzu: talde-lana, kultur-ingurune berrietara egokitzea, erresilientzia eta zure buruaren ezagutza.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? Zer azpimarratuko zenuke?

Erabat praktikoa da, talde-lana eta autolidergoa asko lantzen dira. *Learning by doing* eta *Design thinking* metodologiak oso presente daude. Prozesu oso bat da, non ebaluatu beharreko alderdiak hiru dira: banakakoa, taldekoa eta enpresakoa.

Lehen egunetik enpresa bat sortu unibertsitatean eta proiektuak garatu, nola egiten da hori?

Mamia beti bera da, taldean aurrera ateratzeko gai izatea eta mundu guztiarentzako baliozko proposamenak eskaintzea.

Zer proiektu mota garatu dituzue LEINN graduan zehar?

Ekitaldien garapenarekin hasi ginen, eta horiekin jarraitzen dugu. Erakundeen eraldaketan ere lan egiten dugu, berrikuntzaren eta teknologia berrien ikuspegitik. Guregan konfiantza jarri dute, besteak beste, Kutxabank, Euskaltel, Bilbao Dendak, Seat eta Xplora.

Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango dituzu? Non? Nolakoak izan dira?

Bai, jehenengo urtean Finlandiara joan ginen, bigarrenean Silicon Valleyra eta Seattlera eta hirugarrenean Hego Korean egon ginen 3 hilabetez.

Zer egiten duzu orain eta etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Gaur egun bi adarretan zentratuta nago. Lehenengoa, gaming industrian eta bideo-jokoetarako blockchain teknologiaren aplikazioan. Bigarrena, erakundeen berrikuntzan laguntzea eta egungo eta etorkizuneko kontsumitzaileengana hurbiltzea.

Bilbon euskaraz



Bilbao

▶ www.bilbaeuskaraz.eus



EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitetz BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta Deustualdeko euskalgintza.

20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari.

Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest!

Berbaizu
—euskara elkarte—